## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-1870

61/2000 DEKRETUA, apirilaren 4koa, Gizarte Ekimeneko Kooperatibak arautzen dituena.

Euskal mugimendu kooperatibistak garapen handia izan du gizartean nahiz enpresetan, horretxegatik nabarmendu da hain justu ere, eta horrek aintzindari eta erreferente bihurtu du Estatuan eta Europan. Hala ere, Euskadiko Kooperatibismoa beste bi aldetatik ere nabarmentzen da egun: batetik, dituen forma eta jarduera sektorialaren eremu desberdinengatik eta, bestetik, kooperatiba-sozietate baten ikuspegitik, herritarren hainbat beharri erantzuten alor batzuetan egin duen ekarpenagatik, hala nola, hezkuntzan, etxebizitzetan, elikaduran, finantzetan eta beste alor batzuetan.

Laguntza ematen duten elkarlaneko euskal kooperatiben artean, laurogeita hamargarren hamarkadan gehienak, agerian gainera, gizarte-osasun, hezkuntza, kultura edo ingurugiroko zerbitzuetan jardun dutenak izateak bermatu baino ez du egiten aurrez esandakoa.

Alor horretan garatu diren kooperatiben inguruan, jokamolde batzuk eta sozietatearen berariazko arau batzuk artikulatu dira, zeintzuen ezaugarririk funtsezkoena irabazte-xederik ez izatea baita. Arau horiek dituzten kooperatibei «Gizarte Ekimeneko Kooperatibak» deitzen zaie. Dela duten garapenagatik —gero eta handiagoa—, dela aipatutako zerbitzuak betetzeko egokiak direla aitortuta dutelako, komeni da arauz arautu daitezen. Izan ere, jarduera eremua zehaztu gabe dago, bai sozietatearen xedea osatzen duten jarduerei dagokienez, bai sozietatearen oinarrizko ezaugarriari dagokionez, zeina irabazte-xederik ez izatea baita funtsean. Arautuz gero, berriz, saihestu egingo genuke zehazgabetasun horrek sor dezakeen segurtasun-falta juridikoa. Hala kontsideratu da kooperatibei buruzko azken legeetan (abenduaren 22ko 9/1998 Legea, Aragoiko Kooperatibei buruzkoa, eta uztailaren 16ko Legea, Estatuarena, Kooperatibei buruzkoa). Horien erregulazioa jarraitzen du, hain zuzen, dekretu honek, alor honetan bat datorrenez gero.

Bestalde, sistema ekonomiko eta sozialetik kanpo geratu diren pertsonak nekazaritzako, industriako, merkataritzako edo zerbitzuetako jardueren bidez gizarteratzeko kooperatibak ere gizarte ekimeneko kooperatibatzat kontsideratu dira.

Ohartarazi beharra dago Gizarte ekimeneko kooperatibak arautzeak ez duela eragozten Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 127. artikuluaren arabera kooperatiba batzuk «ezinduak gizarteratzeko kooperatibak» gisa tipifikatzen dituen araua.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-1870

DECRETO 61/2000, de 4 de abril, por el que se regulan las Cooperativas de Iniciativa Social.

El Movimiento Cooperativista vasco se ha caracterizado por su gran desarrollo social y empresarial, que lo ha situado como líder y referente en el ámbito estatal y europeo. Ahora bien, el Cooperativismo en Euskadi destaca así mismo, en la actualidad, tanto por la variedad de sus formas y ámbitos de actuación sectorial como por su aportación a la satisfacción desde una perspectiva societaria cooperativa, de necesidades colectivas diversas, como pueden ser las educativas, de vivienda, alimentarias, financieras y otras de distinta índole.

El que entre las necesidades sociales a las que dan respuesta las cooperativas vascas de Trabajo Asociado sobresalgan en la década de los noventa, de forma creciente, las que desarrollan su actividad en el ámbito de prestación de servicios socio-sanitarios, educativos, culturales o medioambientales, avala lo anteriormente expuesto.

En torno a las cooperativas que se han desarrollado en este ámbito se han ido articulando unos comportamientos y reglas societarias internas específicas, caracterizadas básicamente por la ausencia de ánimo de lucro, y que son conocidas como cooperativas «de iniciativa social». Tanto por su creciente desarrollo como por sus acreditadas condiciones de idoneidad para proveer de los servicios mencionados, conviene que sean reguladas reglamentariamente, al objeto de evitar la inseguridad jurídica que podría derivarse de la indefinición de su marco de actuación, referido tanto a las actividades que componen su objeto social como a su caracterización social interna, fundamentalmente derivada de la ausencia de ánimo de lucro. Así se ha considerado por las leyes cooperativas más recientes, (Ley 9/1998, de 22 de diciembre, de cooperativas de Aragón y Ley estatal 27/1999, de 16 de julio, de cooperativas) cuya regulación, coincidente en esta materia, sigue el presente Decreto.

Por otra parte se han venido considerando también como «de iniciativa social» aquellas cooperativas dirigidas a la inserción laboral de personas marginadas del sistema económico y social, mediante el desarrollo de actividades agrícolas, industriales, comerciales o de servicios.

Ha de advertirse que la presente regulación reglamentaria de las Cooperativas de Iniciativa Social no interfiere con la norma que tipifica determinadas cooperativas como de «integración social» según el artículo 127 de la Ley de Cooperativas de Euskadi.

Edukiari dagokionez, 1. artikuluak, xede jakin bat (artikulu horretan bertan zehazten da) duten kooperatibentzat mugatzen du kalifikazioa, hain zuzen, irabazte-xederik gabekoentzat (2. artikuluan zehazten dira ezaugarriak), edozein motatakoak direla. Azkenik, 3. artikuluak kooperatibentzat aplikatzekoa den araudia zein den zehaztu ondoren, 4. artikuluak berariazko aipamena arautzen du, zeina izenarekin batera aipatu behar den, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak kalifikazio hori eman ondoren.

Ondorioz, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen bosgarren azken xedapena garatuz, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorenari entzun ondoren, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko apirilaren 4an aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Kalifikazioa eta xedea.

Gizarte Ekimeneko Kooperatiba gisa sailkatzeko, sozietateek, edozein motatakoak direla, ez dute irabazte xederik izango, eta gainera, xede hauek izan beharko dituzte: zerbitzu asistentzialak ematea, osasun, hezkuntza eta kultura alorreko jarduerak eta izaera soziala duten beste batzuk eginez; edo jarduera ekonomikoren bat burutzea edozein arrazoirengatik gizartean baztertuta dauden pertsonak lan munduan sartzeko; eta, oro har, merkatuak zaintzen ez dituen behar sozialak asetzea.

*2. artikulua.*– Irabazte-xederik ez izatea.

Aurreko artikuluan jasotako ondorioetarako, irabazte-asmorik gabeko sozietatetzat hartzeko, estatutuetan honako hauek jaso beharko dituzte berariaz:

a) Ekonomia-ekitaldi batean sortzen diren emaitza positiboak ezingo dira banatu bazkideen artean.

b) Sozietateko kapitalari bazkideek egiten dizkioten ekarpenek, derrigorrezkoek nahiz borondatezkoek, ezingo dituzte diruaren legezko korritua baino korritu handiagoak sortu, ekarpenak eguneratu egin badaitezke ere.

c) Zuzendaritza Kontseiluko karguak dohainik bete beharko dira. Hala ere, kontseiluko kideek beren egitekoak burutzerakoan gasturik edukiz gero, diru-konpentsazioak eman dakizkieke.

d) Langile bazkideen edo lan-bazkideen eta inoren konturako langileen ordainketak ezingo dute gainditu sektoreko soldatadun langileen hitzarmen kolektiboak lanbideko jarduera eta kategoriaren arabera jarritako ordainketen ehuneko ehun eta berrogeita hamar.

En cuanto a su contenido, su artículo 1 circunscribe la calificación de iniciativa social a aquellas cooperativas que sin ánimo de lucro (cuyos rasgos característicos se contemplan en el artículo 2) y con independencia de su clase, tienen un determinado objeto social que el propio artículo especifica. Finalmente, y tras determinar el artículo 3 cuál es la normativa aplicable a las cooperativas de iniciativa social, el artículo 4 regula su mención específica, que deberá expresarse en su denominación, previa su calificación como tal por el Registro de Cooperativas de Euskadi.

En su virtud, en desarrollo de la Disposición Final Quinta de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de cooperativas de Euskadi, oído el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi ,de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 4 de abril de 2000.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Calificación y objeto.

Se calificarán como de iniciativa social aquellas cooperativas que, sin ánimo de lucro y con independencia de su clase, tienen por objeto social, bien la prestación de servicios asistenciales mediante la realización de actividades sanitarias, educativas, culturales u otras de naturaleza social, o bien el desarrollo de cualquier actividad económica que tenga por finalidad la integración laboral de personas que sufran cualquier clase de exclusión social y, en general, la satisfacción de necesidades sociales no atendidas por el mercado.

*Artículo 2.*– Carencia de ánimo de lucro.

A los efectos previstos en el artículo anterior serán consideradas como Sociedades Cooperativas sin ánimo de lucro las que en sus Estatutos recojan expresamente:

a) Que los resultados positivos que se produzcan en un ejercicio económico no podrán ser distribuidos entre sus socios.

b) Que las aportaciones de los socios al capital social, tanto obligatorias como voluntarias, no podrán devengar un interés superior al interés legal del dinero, sin perjuicio de la posible actualización de las mismas.

c) El carácter gratuito del desempeño de los cargos del Consejo Rector, sin perjuicio de las compensaciones económicas procedentes por los gastos en los que puedan incurrir los Consejeros en el desempeño de sus funciones.

d) Que las retribuciones de los socios trabajadores, o, en su caso, de los socios de trabajo y de los trabajadores por cuenta ajena no podrán superar el ciento cincuenta por ciento de las retribuciones que en función de la actividad y categoría profesional, establezca el Convenio colectivo aplicable al personal asalariado del sector.

*3. artikulua.*– Aplikatzeko araudia.

Zein koperatiba mota diren, kooperatiba mota horri dagozkion arauak aplikatuko zaizkie gizarte ekimeneko kooperatibei.

*4. artikulua.*– Izena.

Dekretu honen 1. artikuluan adierazitako betekizunak konplitzen dituzten kooperatibei, edozein motatakoak direla, duten izenaz gainera, «Gizarte Ekimeneko Kooperatibak» erantsiko zaie, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak kalifikazio hori eman ondoren.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Arauzko garapena.

Ahalmena ematen zaio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dekretu hau garatzeko eta burutzeko behar diren xedapenak hartzeko.

*Bigarrena.*– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko apirilaren 4an.

Jaurlaritzako lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

*Artículo 3.*– Normativa aplicable.

A las cooperativas de iniciativa social se les aplicarán las normas relativas a la clase de cooperativa en que esté encuadrada.

*Artículo 4.*– Denominación.

Las cooperativas de cualquier clase que cumplan con los requisitos expuestos en el artículo 1 del presente Decreto expresarán además en su denominación, la indicación «Iniciativa Social», previa su calificación como tal por el Registro de Cooperativas de Euskadi.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de abril de 2000.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

## OSASUN SAILA

## Zk-1871

62/2000 DEKRETUA, apirilaren 4koa, kanpo-protesiei, gurpil-aulkiei, ortesiei eta protesi bereziei buruzko ortoprotesi zerbitzuak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.

Urtarrilaren 22ko 9/1997 Dekretuaren bidez, kanpo-protesiei, gurpil-aulkiei, ortesiei eta protesi bereziei buruzko ortoprotesi zerbitzuak arautzen dira. Bertan ezarritakoaren arabera, zerbitzu horietan sartutako sanitate-produktuak egiteko eta saldu ahal izateko, establezimenduek administrazio-baimenak lortu beharko dituzte, eta dagokien lankidetza-hitzarmena sinatu beharko dute Osasun Sailarekin. Bestetik, 6.1. artikuluak dioenez, establezimendu horiek beharrezkoa izango dute Ortoprotesi Materialen Katalogo Orokorrean agertzen diren produktuen modelo bana, gutxienez, edukitzea, Katalogoan agertzen den prezio berean edo merkeago (zergak barne).

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

## N°-1871

DECRETO 62/2000, de 4 de abril, de modificación del Decreto por el que se regula la prestación ortoprotésica relativa a prótesis externas, sillas de ruedas, órtesis y prótesis especiales.

Mediante el Decreto 9/1997, de 22 de enero, se reguló la prestación ortoprotésica relativa a prótesis externas, sillas de ruedas, órtesis y prótesis especiales. En él se prevé que la elaboración y la dispensación de los productos sanitarios comprendidos en esta prestación se llevará a cabo en los establecimientos debidamente autorizados que suscriban con el Departamento de Sanidad el oportuno convenio de colaboración. Según el artículo 6.1, una de las obligaciones que deben asumir dichos establecimientos es disponer al menos de un modelo de cada producto sanitario relacionado en el Catálogo General de Material Ortoprotésico a un precio igual o inferior al establecido en el mismo, impuestos incluidos.